

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Larunbata, 2011ko martxoaren 5a. VIII. urtea. 2.186. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Eskoletako haurrak izan dira Inauterietako lehen mozorrotuak

Tolosaldeko eskolek bat egin dute Inauteriek eta jaialdi koloretsuetan, haurrak dantzan jarri dituzte. Berrobin, Adunan, Asteasun eta Zizurkilen gozamina nagusitu da

Tolosan Zaldunita Bezpera ospatuko dute gaur; Danborrada 19:00etan izango da eta The Wailersen kontzertua 23:30ean, Euskal Herria plazan 02-6



Aduna, Zizurkil, Asteasu eta Berrobiko eskoletako haurrak mozorroturik irten ziren kalera, jaialdi umoretsuak ere egin zituzten. MAIERUGARTEMENDIA

Abaltzisketan eta Amezketan makilak eskuan dituztela egingo dute dantza

Talai dantzariak eta txantxoak bihar 08:00etan irtengo dira kalera; Amezketan etzi egingo dute Inauterietako azken dantza 06

Bost lanen artean erabakiko da Beterriko Liburua zein den

'3 Mariak'; 'Autopsiarako frogak'; 'Fikzioaren Izterrak'; 'Katu Jendea' eta 'Ospitalekoak' liburuek gainditu dute bozketen lehen txanda 07

Inauterietako Argazki lehiaketa

- Saria: Denak taberna 4 pertsonentzako afaria
- Argazkiak nora bidali: argazkiak@tolosaldeko-hitza.info harpidedun kodea jarri behar da mezuan, harpidedun bakoitzak gehienez bi argazki bidali ditzake.
- Noiz bidali: Martxoaren 4tik martxoaren 9a bitartean.
- Sariduna: Martxoaren 15eko alean argitaratuko dugu.



Parte hartuko duten argazki guztiak ikusgai izango dira Inauterietan www.tolosa.hitza.info webgunean!



Irati Artutxa • Inauterizalea

«Tolosako Inauteriak ez dira ezer txarangen musikarik gabe»

Itzea Urkizu

Irati Artutxak (Tolosa, 1989) txikitatik maite ditu Inauteriak, eta Ostegun Gizenetik hasi eta Asteartitara bitarte ez du parrandarako aukerarik galtzen.

Inauterik hurbiltzen diren heinean zein sentsazio izaten duzu?

Urduritasuna, poza, gogoia...

Egunik onena?

Egunik onena? Ez nuke jakingo egun bat aukeratzeko. Aukeratzeko, Ostegun Gizona edo igandea aukeratu nituzke. Osteguneko herri-giroa izugarri gustatzen zait. Txupinazotik hasita txaranga doinuek giro polita sortzen dute. Igandea, mozorrotzeko lehen eguna izaten da, eta beste izaera bat hartzen duzula dirudi.

Ostegunak zer du tolosar batenzat?

Emozioa, poza, urduritasuna. Ni-rettzat, Inauterik hasteko, egunik aproposena eta politena da.

Zer dira zuretzat Inauteriak?

Urteko egunik onenak. Egun gutzia etxetik kanpo pasatzen dituzun egunak, alaiak, ikusgarriak

eta gozatzeko egun aproposak; eguneroko kezkek ahaztu egiten dira. Tolosarra naizen aldetik, nire herriko Inauteririk bezalakerik ez dago.

Mozorroa ala txilaba?

Nahiago dut mozorroa.

Prestatu al duzu?

Ez dut oraindik erabat prestatu, baina azken ukituak falta zaizkit. Beti azken momentuan ibiltzen den horietakoa naiz eta ez dut sekula ikasiko...

Erositako mozorroak ala etxeko trapuekin egindakoak dituzu nahiago?

Tolosako Inauteriek duten bereizgarrietako bat etxeko trapu zaharrek mozorrotzearena da. Ni etxeko trapuak erabiltzen saiatzen naiz, baina hala ere, beti erosi behar izaten da zerbait.

Tolosako Inauterietan txaranga kenduko baliete?

Ez lirateke Inauterik izango. Tolosako txarangek sortzen dituzten doinuek alaiak dira, pozgarriak eta atseginak. Inauterik ez dira ezer txarangerik gabe.

Inauteriak, gaez ala egunez?

Nahiago ditut egunez. Horrek ez



HITZA

du esan nahi gaez ere gozatzeko ez ditudanik! Eguneko giroa izugarri gustatzen zait, jendearen mozorro desberdinak eta karrozak ikusi, txarangen doinuez gozatu, dantza egin...

Kanpotar batek tolosar baten moduan bizial ditzake Inauteriak?

Kanpoko jendeak Inauterietan ondo pasatzeko aukera izango du, baina ez zait iruditzen sekula tolosar baten moduan sentituko dituenik. Tolosarrontzat, oso egun bereziak dira.

Txikitatik izan zara inauterizale?

Bai, urte batean kanpora joan be-

har izan nuen arren. Gurasoek, lana zela eta anai-arrebokin egoteko denborarik ez zuten, kanpora joan ginen guztiok. Baina lehenengo eta azkena, ez naiz gehiago kanpora joango, ez bada garrantzizko zerbaitengatik.

Karrozako partaide ala txarangen atzetik saltoka ibiltzen den horietakoa?

Txarangen atzetik ibiltzea asko gustatzen zait. Hala ere, aurrean lehenengo, karroza aterako dugu, plataforma txiki bat, eta musikarik ez zaigu faltako hemen ere.

Kanturik politena, hunkigarriena?

Asko daude, baina *Diana* eta *Baila negra* gustatzen zaizkit gehien. Ostegun Gizeneko abestiak ere oilo-ipurdia jartzen dit, txupinazoa jo ondoren entzuten dugunetan.

Mozorro gogoangarri bat?

Ez dut mozorro berezirik. Oso gustura erabili nuen Pantera Arrosaren mozorroa, orain bi urte. Kazkabarra aisialdi taldearekin jantzi nuen, oso beroa zen eta asko gustatu zitzaidan. Hala ere, aurtengo mozorroa da hobereena, baina Zaldunita iritsi arte ezin da ezer esan!

Hausterre egunean begiak irekitzean...

Hurrengo urteko Ostegun Gizenarako gutxiago falta dela pentsatzen dut beti.

50 urte Dianan rekintoa jotzen

Gutxi izango dira kopuru hori bete dutenak eta txarangetan hainbeste jo duten musikariak

Joxemi Saizar Tolosa

1961ean sartu zen Tolosako Musika Bandan eta bihar 50 urte bete-ko ditu bere rekintoarekin Diana jotzen Jose Mari Mendibil musikari tolosarrak. Ia inor biltzen ez zen garaietatik gaur egungo ekitaldi jendetsurako bilakaera ezagutu du zuzen-zuzenean.

Jose Mari Mendibil ezaguna da Tolosaldean eta Euskal Herriko toki askotan Incansables, Ipurtargiak eta beste txaranga batzuetan saxofoia jo izan duelako. Inauterietan bera baino gehiago jo duen musikari gutxi izango da Tolosan. Alcoyano eta Poca Tripa txarangekin aritzen da aspaldidanik, baina urte batzuetan Arco iris, Kabi alai eta San Esteban txarangekin ere jo zuen.

Musika ikasketak Tolosan egin zituen, rekinto ikasten 11 urterekin hasi (klarinetearekin hasteko behatz txikiegiak zituelako) eta karrera bukatzeko bi urte falta zituela utzi behar izan zituen, 14 urterekin lanean hasteko. Orduan ez zegoen Donostiara ikastera joateko aukerarik. Aurretik ez zuen musikaririk familian, baina orain bai: bere emaztea Mila Esnaolak tronboia jotzen du Konponezinak txaranga eta Ikasleen Bandan, Ibon semeak saxofoia Incansables txaranga,

Nagore alabak flauta Musika Bandan, bi iloba ditu Bandan...

Hainbat txarangatan ibilia

Musika Bandan 1961ean sartu eta 44 urte egin zituen, 2005 arte. Geroztik tarteka parte hartzen du kontzertu batzuetan (Santa Zezilia, Inauteriak), baina Dianan ez du hutsik egin. Manuel Valmaseda (bere irakaslea), Jose Antonio Ruiz-Bona eta Luis Mari Gartzia ezagutu ditu zuzendaritzan. Musikari on asko ditu gogo-

Gutxi izango dira Tolosan Jose Mari Mendibilek adina jo duenik Inauterietan

11 urterekin hasi zen rekinto ikasten eta 14rekin utzi lanean hasteko

ko: Mozo fliskormoarekin, Ceferino Rico eta Jose Martin Martinez klarinetearekin, Jose Carrera perkusioan... Zarzuela asko jotzen zituzten garai hartan eta Bandakide batzuk orkestina gisa plaza Berrian jotzen zituzten dantzaldian gogoratzen ditu Gustura pasatu du Bandan.

Inauterietan, txarangetan

Inauterietan, Bandarekin Diana eta Danborrada jotzeaz gain, gehienbat txarangetan aritu da Mendibil. Poca Tripa txaranga sortzailea da, lagun artean osatu baitzuten. 2013ean egingo di-



Jose Mari Mendibil Musika Bandako jantziarekin Dianan. HITZA

tuzte 50 urte. Ondoren Alcoyano etorri zen. Honek konpromiso handiago eskatzen zuen, Euskal Herria osoan eta kanpoan ere aritzen baitziren jotzen. Aurrera elkarteko danborradan ere jotzen du. Eta Ipurtargiak eta Incansables txaranga urte asko egin ditu herriz herri, eta baita herri-

ko jaietan ere. Urte askotan Inauterietako hiru egunetan ateratzen zen musika jotzen, baina gero egun bat utzi eta musikari batzuk familian ateratzen ziren konpartsa musikal modura.

Aurtengo jaietako umorez ekingo diebere rekinto eta saxofoiarekin kaleak girotuz.

↓ Gaurko egitaraua, Zaldunita bezpera

UDALAREN EGITARAUA

- **11:00etan.** Erraldoi eta buruhandiak. Irteera Plaza Zaharretik.
- **11:30etan eta 17:00etan.** Kabi-Alai elkarteko txarangaren irteera.
- **11:45ean.** Dantzari txikien kaletira abiatuko da Trianguloatik.
- **17:00etan.** Haur Danborrada aterako da Geltoki kaletik.
- **19:00etan.** Tolosako Danborradaren irteera Trianguloatik.
- **23:30ean.** Iraunkorrek eta Oriako txaranga kalez kale.
- **23:30ean.** The Wailers taldearen kontzertua Euskal Herria plazan, ostalaritza eta Gaztea Iratiaren babesarekin.

TXOSNA GUNEA

- **18:00.** Txosnen irekiera eta txokolatada eta marrazki maratona.




2009ko Zaldunita bezperako danborradaren irudia. R. CALVO

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena


ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**HILETAREN
BALIOA**
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horietan lider garenez, aukera ekonomiko gutxiak egokitzen diren Hileta Zerbitzu Pakua eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazina da galdu duzuna.
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Dantza egiteko festa



Adunako Eskolako ikasleek antzerkia eta dantza uztartu zituzten umore handiko jaialdia egiteko. Berrobiko ikasleek Ostegun Gizenean egin zuten beraien jaialdia eta garai ezberdinetako pertsonaiez mozorrotu ziren. Zenbait gurasok ere parte hartu zuten festan, amonen garaikoak balira bezala jantzita. HITZA



Atzo, Zizurkilen hiru eskola ezberdinetako haurrak, eskoletatik irten eta plazaraino kalejiran joan ziren. Bertan, ikastetxe bakoitzak beraien dantza eta emanaldiak eskaini zituzten. Festa amaitu ondoren, merezitako txokolatzeko ogitartekoa eman zieten ikastetxe guztietao haurrei. MAIER UGARTEMENDIA



Asteasuko frontoian ere atzo egin zuten Inauterietako jaialdia. Bertan herrialde ezberdinetako pertsonaiak, beraien herrialdeetako dantzak eskaini zituzten. MAIER UGARTEMENDIA

Ostiral Mehean ere inauteri



Atzo goizean kaleak alaitu zituen Ozenki txistulari taldeak, txarangaren laguntzarekin. HITZA



Kabi Alai txarangak zezen-plaza girotu zuen. HITZA



Zezenzale ugari izan ziren zezentxoekin jolasean. HITZA

Gure Kaiola hutsik Ostegun Gizeneko afarian emakumeak zeudelako

Bazkide batek bi emakume gonbidatu zituen afarira eta beste afaldarrak Casinora joan ziren afaltzera

I. Garcia Tolosa

Tolosako Inauterietako Ostegun Gizeneko afarian, Gure Kaiola elkarteak hutsik gelditu zen gonbidatuen zerrendan bi emakume

zeudelako. Bertan, afaria egin ohi dute urtero. Izena ematen duen bazkide bakoitzak bi gonbidatu eraman ditzake.

Aurtengoan, bazkide batek bi emakume gonbidatu zituen afaltzera. Zerrendan zeuden gainontzeko afaldarrek, 70 lagun inguruk, Gure Kaiolan elkartu beharreen Casino elkartearen goiko solairuan afaldu zuten.

Bi emakumeek eta gonbidatu zituen bazkideak Gure Kaiola huts batean afaldu zuten.

Gutuna

Parranda eta umorea bai, baina basakeriarik ez

Urtean zehar metatutako adrenalina botatzeko onak omen dira honelako egun batzuk, *arauak* hautsiz lasaitu bat hartzeko; eta gainera, Tolosako Inauteriek badute halako berezitasun bat: herritarrak beraiek direla protagonistak, norberari sortzen zaio ideia eta hura gauzatzen du.

Badira, ordea, gertaera gaitzesgarriak ere. Hona hemen erakusgarri bat: Zumalakarregi kalea halako lan eskeragatik egin ondoren oso apaina geratu da, zuhaitz gazte lirainak ere jarri dituzte eta oso ongi zetozen denak; bada zuhaitz hauetako lau gerri-gerritik hautsi dituzte otsailaren 25etik 26rako gaue-

an. Honelako asko gertatzen da ganberrokeriak, alkoholak... edo eraginda. Koadrila horietan dabilten guztiek onartzen ote dituzte horrelako basakeriak? Ez ote da horien artean zentzu gehiago duenik ekintza horiek ekiditeko?

Nolanahi ere, horrelako jokaren aurrean neurri zorrotzak hartu behar lituzketela uste dut agintariek.

Bide batez, zoriandu eta eskertu nahi ditut Tolosako agintariak, alderdi hau eta Tolosa guztia txukuntzen eta edertzen egiten duten ahaleginagatik; baldin eta herritarren dirua ondo kudeatzen badute

■ **Mattin Amundarain.** Tolosa.





Inauterietako giroa Tolosaldea eta Leitzaldea osoan zehar barreiatzen ari da. Berastegi, Lizartza, Leitza eta Aresokoak bukatuta, Tolosakoekin batera iritsi dira Amezketa eta Abaltzisketakoak.

Makilen talaiia zabalduko da Txindokipean

Rebeka Calvo

Talai hitza bi makilek elkar jotzean sortzen duten onomatopeia omen da. Hots berezia da bi makilek egiten dutena eta egurren arteko borroka hori da hain justu, Amezketa eta Abaltzisketako Inauterien soinu-banda.

Abaltzisketan bihar ospatuko dituzte Inauteriak. Txantxoak dira bertan protagonista, eta ohitura noiztik datorren ez badakite ere, 1950. urte inguruan behintzat, bazirela diote. Gerra ondoren galdu egin zen ohitura, baina ondoren berreskuratzea erabaki zuten herritarrek.

Abaltzisketan, txantxoak

Abaltzisketako txantxoak bihar 08:00etan elkartuko dira dantzan hasteko.

Urteroko moduan zortzi dantzari, bi mozorro eta soinu-jotzaile bakarria izango dira herrian zehar Inauteri giroa zabaltzen. Aurtengoan dantzari berri bat ere badute gainera, Aitor Orbegozo, hain zuzen.

Txantxoaren jantziak bereziak dira: alkandora eta galtza zuriak eramaten dituzte, txapela gorria borla zuriaekin, gorbata beltza eta bi ezkon-mantoi koloretsu. Mozorroek berriz, aurpegia beltzez margotuta ateraten dira eta puska biltzea da euren egitekoa. Dantza egin aurretik baserri atarian erratza pasatzen dute. Goiza dantzan eta puska biltzen eman ostean, bazkari ederra ere egingo dute.

Amezketan, talai dantzariak

Amezketan, bere aldetik, ohiturari jarraiki bi egunetan ospatuko dituzte Inauteriak, bihar eta etzi.

Garai batean egun gehiagotan ere ospatzen zituzten Inauteriak, baina urteak dira jada bi egunetan bakarrik egiten dutela. Abaltzisketan txantxoaren dantza nagusitzen diren bezala, Amezketan talai dantzariak dira protagonista. Neskak eta mutilak ateratzen dira, emakumezkoak 1983. urtean geroztik ateratzen direlarik.

Bai Amezketan eta baita Abaltzisketan ere doinu bera erabiltzen dute dantza egiteko

Talai dantzariak mahoizko galtzekin eta alkandora txuriekin ateratzen dira. Gerriko eta txapela beltzak ere eramaten dituzte, eta bukatzeko abarkak eta zapi koloretsuak izaten dituzte.

Arestian aipatu moduan, Amezketan bi egunetan ateratzen dira talai dantza bizia egitera. Bihar Zazpi-Iturri elkartearen elkartu eta talai dantza egingo dute etxetik puska biltzera joan aurretik.

Bai Abaltzisketan eta baita Amezketan ere dantza doinu bera erabiltzen dute, baina amezketarren talai dantza txantxoena baino arinagoa da. Bietan, hala ere, makil hotsak nagusitzen dira, Txindokipean Inauteriak ospatzen ari direla iragarri ahal izateko.



Abaltzisketako txantxoak txuriz joaten dira ezkon-mantoi koloretsuak soinean ditzuztela. N. LATABURU



Talai dantzariak mahoizko galtzak eta alkandora txuria eramaten dute. I. GARCIA

↓ Egitarauak

ABALTZISKETA

BIHAR, IGANDEA

■ **08:00.** Zortzi dantzariak, bi mozorroak eta soinu-jotzaileak elkartuko dira eta Orendain aldera dauden baserriak zeharkatuko dituzte txantxoek.

■ **10:30.** Eliza aurrean Makila Txiki dantza eskainiko dute.

■ **13:00.** Larraitzeko ermitaren aurrean bilduko dira mezatik ateratzen diren herritarrei dantza egiteko. Ondoren Larraitz aldeko baserrietara joango dira.

AMEZKETA

BIHAR, IGANDEA

■ **08:00.** Zazpi-Iturri elkartearen inguruan bildu eta puska biltzen hasiko dira baserri baserri. Bi talde izango dira.

Lehen taldekoak Sakelatik abiatuta Ugarten dantzatuko dute eta Zubillaga auzora joango dira.

Bigarren taldekoak Petxunetik abiatuta Zubillaga auzora joango dira dantzara. Zubillagako bidegurutzean bi taldeak elkar-

tu eta herriko kaleak zeharkatuko dituzte. Azken dantzak Ergonen egingo dituzte.

ETZI, A STELEHENA

■ **08:00.** Plazan elkartuko dira eta bi taldetan banatuko dira Bedaio eta San Martin inguruko baserrietara joateko. Lehen taldea Ugartetik Larreta baserri joango da eta bigarrena, aldiz, Liola aldetik gerturatuko da Larreta baserri, bertan Inauterietako azken dantza saioa egiteko.

www.tolosaldea.hitza.info

herrietako informazioa inoiz baino gertuago
ezagutu gure webgune berriak

www.ibarraldea.hitza.info • www.alegialdea.hitza.info • www.anoetaldea.hitza.info • www.villabona-aiztondo.hitza.info
www.leitzaldea.hitza.info • www.tolosa.hitza.info

Abian da 2010eko Beterriko Liburua izendatzeko bozketa prozesua

Urretabizkaia, Izagirre, Apalategi, Rodriguez eta Antza dira lehen bozketa txandan aurrera egin dutenak.

Erredakzioa Aitzondo

111 Akademiak 2010eko Beterriko Liburua izendatzeko aukeraketa prozesua martxan jarri du. Urtrilaren erdi aldera zabaldu zen lehen bozketa txanda, eta bertan 2010eko libururik gogokoaren aldeko botoa bidaltzeko eskatu zieten 168 akademiakideei.

Akademiaren arautegiaren arabera, lehenengo txanda horretan obra batek jasotako botoen %30a bereganatu behar du Beterriko Liburu izendatua izan dadin. Ez zen halakorik gertatu, eta beraz, akademiako Batzorde Eragileak lehen saio horretan boto gehien jaso zuten lehenengo bost obrak jarri ditu bigarren txanda batean.

Bost liburu hauek izan dira boto gehien jaso zituztenak: Arantxa Urretabizkaia *3 Mariak*; Koldo Izagirre *Autopsiarako frogak*; Ur Apalategi *Fikzioaren Izterrak*; Eider Rodriguez *Katu Jendea* eta Mikel Antzaren *Ospitalekoak*.

Beraz, akademiakideek, martxoaren 16ra bitartean zabalik egongo den bigarren bozketa



Iñaki Jimenez idazleak jaso zuen 2009ko Beterriko Liburu Sari Amasun. AUIRRI

txandan bost horietako baten alde egin beharko dute.

Bigarren horretan obra batek jasotako botoen %40a bereganatuko balu, akademiako Batzorde Eragileak huraxe izendatuko luke 2010eko Beterriko Liburu. Aldiz, kopuru horretara iritsi den obrarik ez balego, boto gehien jaso duten lehenengo bi lanak hirugarren txandara pasako lirateke, eta babes gehien jasotzen duenak irabaziko luke saria.

Laugarren urtez, 111 Akademiak txanda sistemaren aldeko

apustua egin du Beterriko Liburu aipamena jasoko duen obra izendatzeko; izan ere, sistema honek saritutako obra ahalik eta akademiakide gehienek irakurtzea ahalbidetzen du, eta beraz, babes handiagoz izendatzen da sariduna. Akademiakideen parte hartzeak garrantzi handia du.

Maila eta mota guztietako irakurleak onartzen ditu 111 Akademiak, baina urtean zehar egiten duten irakurketaren emaitza akademiarekin partekatzea eskatzen zaie, iritzi eta botoak bidalitzeko.

↓ 111 Akademia

BOST LIBURU

- **'3 Mariak'**. Arantxa Urretabizkaia.
- **'Autopsiarako frogak'**. Koldo Izagirre.
- **'Fikzioaren Izterrak'**. Ur Apalategi.
- **'Katu Jendea'**. Eider Rodriguez.
- **'Ospitalekoak'**. Mikel Antzaren.

→ Laburrak

Jesusen Bihotza Ikastolan hitzaldia ostegunean

VILLABONA Osteguna, hilaren 10a, Jesusen Bihotza Ikastolan TDHAKO hitzaldia egongo da guraso guztiei zuzendua. Bertan arreta gabezia, hiperaktibitatea... duten haurren inguruan hitz egingo da. 15:00etatik 17:00etara izango da Txermin-go liburategian (3. solairua).

Emakumeek merienda eta afaria egingo dituzte

AMEZKETA Asteartean, Emakumearen Nazioarteko Egunean, Amezetan lehendabizi merienda egingo dute. Ez da izenik eman behar bertara joateko eta 17:00etan Errekalde Jatetxean elkartuko dira. Bestetik, egunean bertan afaria egingo dute Zalbide sagardotegian. Animatzen denak, bertara azaldu beharko du 20:30ak alderako.

43. Aizkardiko Ibilaldian izena emateko aukera dago

VILLABONA Hilaren 27an Aizkardiko 43. Ibilaldia izango da. 43 kilometroko ibilbide luzea eta 23 kilometroko ibilbide motza izango dira. Izena ematea www.aizkardi.com helbidean sartuta egin daiteke edo astelehenean ostiralera, 20:00etatik 22:00etara 649 71 71 82 telefono zenbakira deituz.

Irudia



LONDRESEN ERE EUSKARAREN ALDE

Korrika 17 dela eta, Euskalclip lehiaketa antolatuta dute. Horri erantzunez, Londresen ere euskararen aldeko aldarrikapenak egin dituzte eta, Tolosaldeko lagun batzuk tarteko, lehiaketa parte hartu dute. Londreseko Euskal Elkarteak izan dira bi-

deoa aurkeztu dutenak. Martxoak 4tik aurrera, lehiaketa parte hartu duten bideo guztiak www.korrika.org web orrian ikusteko aukera egongo da. Eta guztien artean gustukoena bozkatu beharko da. HITZA


Mapfre ontziak arazoak izan ditu itsasoan

Erredakzioa Ibarra

Xabi Fernandez ibartarrak eta Iker Martinezek arazoak izan zituzten atzo Barcelona Word Racean.

Mapfre ontziaren drizetako bat hautsi zitzaion eta ordu luzez geldirik egon behar izan zuten. Bai-

na lurra ukitu gabe ontzia konpontzea lortu zuten eta bidean doaz. Beraien helburua munduari buelta geldialdirik gabe egitea da. Lasterketaren buruan doan *Virbac Paprec 3* ontziak 270,9 miliatara luzatu du bere abantaila Barcelona World Race lasterketan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



GOIZA	OSKARBI
ARRATSALDEA	OSKARBI
BEROENA	11°
HOTZENA	5°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile




'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Gora eta behera



EUSKAL MUSIKAZ HOBE

Tolosako Inauterietan albiste pozgarri asko egoten dira. Barrakek adibidez, bat eman ziguten prezio merkeekin. Baina asko itxaron gabe, beste bat ere aurkitu dugu leku berean. Kasu hotetan musikarekin dauka

zerikusia albiste onak. Izan ere, barrakek euskal musikaren aldeko apustua egin baitute. Bai behintzat, orain arteko egunetan. Eskertzekoa denez, horrela jarrai dezatela ondorengoetan ere. I.GARCIA



Garraio publikoa

RENFE

- **Brinkola-Irun:** 23:18, 03:00, 03:50, 04:50, 05:00 eta 05:50. Trenak ez dira Apeaderon geldituko.
- **Irun-Brinkola:** 22:36, 23:16, 03:10 eta 05:20. Trenak ez dira Apeaderon geldituko.

TSST

- **23:00etatik 04:00etara orduro.** Ibilbidea: ASTEASU-Zizurkil-Villabona-Irura-TOLOSA.
- **23:30etik 04:30era orduro.** Ibilbidea: TOLOSA-Anoeta-Irura-Villabona-Zizurkil-ASTEASU (Santa Klaratik).
- **22:45ean eta 00:00etatik 07:00etara orduro.** Ibilbidea: DONOSTI-Lasarte-Andoain-Villabona-Irura-TOLOSA
- **22:45ean eta 00:00etatik 07:00etara orduro.** Ibilbidea: TOLOSA-Irura-Villabona-Andoain-Lasarte-DONOSTI.

EGUNIK TRISTEENA

Ostegun Gizeneko eztanda eta gero egun tristea izaten da Ostiral Mehekoa. Egitarauari erreparatuta ekitaldi gutxi izaten dira eta kalean ere ez da jai girorik sumatzen. Gaurkoan, Zaldunita bezperan, ekitaldi gehiago

izaten dira eta danborrada izaten da protagonista. Inauteri egunik eroenak, dena den, bihartik aurrekoak izango dira. Mozorroa jantzi eta kalean txarangen atzetik ibiltzeko egunak ditugu aurretik. A.IMAZ

Agurrak

AGURRAK
 943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
 urrezko ezteiak
 ezkontzak
 jaioberriak
 jaunartzeak...



Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan iritzien erantzukizunik.

TOLOSALDEA BUS

- **00:00-02:00-03:30.** TOLOSA (Zumardi Txiki)-Amarotz-Ikaztegieta-Alegia-Amezketeta-TOLOSA.
- **01:00-02:45-04:15.** TOLOSA (Zumardi Txiki)-Amarotz-Ibarra-Berrobi-Elduain-BERASTEGI.

HIRIBUSA

■ Eguneko zerbitzua izango da, ohiko ibilbidearekin. Azken bi- daia 22:00etan izango da.

TOLOSALDEKO hitza info
 bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldea.hitza.info
www.leitzaldea.hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
 Araba etorbidea 5 behean, atzea - 20400 Tolosa

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

■Izen-abizenak:	■NA:
■Lanbidea:	■Jaioteguna:
■Helbidea:	■Herria:
■P.K.:	■Tel.:
■Posta elektronikoa:	
■Kontu zenbakia:	<input type="text"/>